| | |
|---|---|
| **GIZARTE KOHESIOKO JARRAIPEN-BATZORDEAK 2019KO UZTAILAREN 17AN EGINDAKO BILERAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE COHESION SOCIAL EL DÍA 17 DE JULIO DEL 2019.** |
| **BILDUTAKOAK** | **ASISTENTES** |
| **BATZORDEBURUA** | **PRESIDENTA** |

CARMEN DÍAZ PÉREZ andrea

| **BATZORDEKIDEAK** | **VOCALES** |
|---|---|

KELTSE EIGUREN ALBERDI
IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA
ARANTZA RICA ÁLVAREZ
AINHOA GALDUROZ ÁLVAREZ
JANIRE OCIO CELADA
GONZALO ZORRILLA LEQUERICA
ALICIA GONZÁLEZ DEL VALLE
NEREA GUIJARRUBIA GARCIA
ITXASO MASEDA SARATXO
PAULA AMIEVA CLEMENTE

| **ORDEZKO IDAZKARIA** | **SECRETARIO SUPLENTE** |
|---|---|

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA jauna

| | |
|---|---|
| Osoko bilkuren aretoan, 2019ko uztailaren 17an, 12:00etan, Gizarte Kohesioko Informazio Batzordea bildu da, Carmen Diaz Perez zinegotziaren udalburutzapean, eta adierazitako ordezkariak bertaratu dira . | En el salón de plenos, a 17 de julio de 2019, se reúne a las 12:00 horas la Comisión Informativa de Cohesión Social bajo la presidencia de la Concejala Dª: Carmen Díaz Pérez, con asistencia de los corporativos expresados. |
| Lehendakari jaunak, legeak eskatzen duen kide kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio. Deialdiaren Eguneko Aztergaien Zerrendako gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza: | La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose a tratar los temas incluidos en el orden del día de la convocatoria, con el siguiente resultado: |

**AURRETIKOA.- AURKEZPENAK.**

Legegintzaldiko Informazio Batzordearen lehen bilkura denez, Batzordeko kide guztiak aurkeztu dira.

**1.- ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUAREN ARAUTEGIA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Carmen Díaz andreak jakinarazi du arautegia 2019ko otsaileko osoko bilkuran hasiera batean onartu zela, jendaurrean ikusgai jartzeko aldian Jose Mª Gil Pondalek alegazioak aurkeztu zituela, eta ezetsi zituztela. Hori guztia espedientean jasotzen den moduan.

Paula Amievak galdetu du ea helduen ostatu-zerbitzuaren tasak aldatuko diren.

Carmen Díaz andreak erantzun du oraindik ez dutela aztertu, eta arautegiko edukian ez dela jasotzen.

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin da EAJ eta PSOE taldeen aldeko botoekin (6 boto) eta PP, EH-BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS taldeen abstentzioarekin (5 boto).

**2.- ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA**

Carmen Díaz andreak jakinarazi du bere asmoa Informazio Batzordearen bilkuretan edukia ematea dela. Hor, garatu diren eta

**PREVIO.- PESENTACIONES.**

Al ser la primera sesión de la Comisión Informativa de la Legislatura, se procede a la presentación de todos/as los/as integrantes de la Comisión.

**1.- APROBACION DEFINITIVA DEL REGLAMENTO DEL SERVICIO DE ALOJAMIENTO PARA PERSONAS MAYORES.**

Dª. Carmen Díaz informa que la aprobación inicial del reglamento se dio en la sesión plenaria del mes de febrero del 2019, que dentro del periodo de exposición pública hubo alegaciones presentadas por Jose Mª Gil Pondal y que éstas fueron desestimadas. Todo ello, según consta en el expediente.

Dª Paula Amieva pregunta si se va a proceder a la modificación de las tasas del servicio de alojamientos para personas mayores.

Dª. Carmen Díaz responde que es una cuestión que no ha sido abordada y no está recogida en el contenido del reglamento.

Sometida la propuesta a votación es dictaminada favorablemente por los votos a favor de EAJ-PNV, PSOE-EE (6 votos) y la abstención de PP, EH-BILDU y ELKARREKIN PODEMOS (5 votos).

**2.- INFORMACIÓN GENERAL DEL ÁREA**

Dª. Carmen Díaz informa que su intención es dar contenido a las sesiones de la Comisión informativa, donde se pueda informar de las actividades que se hayan

garatzea aurreikusita dauden jardueren berri eman ahalko da.

Ondoren, laburpena egin du:

2.1. Lokalak uztea Gobelaurreko boluntarioen zentroan: Jakinarazi du uztailaren 16an Dekretua sinatu duela, Gobelaurreko boluntarioen zentroko lokalak uzteko deialdia onartuz. Eskaera epea irailaren 11n amaituko da. Lokalek egoitzetarako, denboraldi baterako jardueretarako eta noizbehinkako jardueretarako eremuak dituzte. Lehenengo bi erabilerak deialdi honen bidez adjudikatu dira.

Batzordeko zenbait kidek erabilera-araubideko eta bertako deialdien agiriak eskatu dituzte. Idazkariak posta elektronikoz alderdi politikoen helbideetara bidaliko dituela hitzeman du.

2.2 Berdintasuna:
Sentsibilizazio kanpainarekin zerikusia duten 4 jarduerei buruzko informazioa eman du, jai-eremuetan sexu-erasoak saihesteko eta gazteen artean batik bat balioak zabaltzeko: Biniloak jarri dira udalerriko zenbait tokitan, berdintasunean bizi diren bikoteen harremanari buruzko gogoeta egiten dutenak; 2 totem ibiltari herriko jaietan, Beldur barik programaren irudiekin eta Planto logoarekin; publizitatea metroan eta autobusetan, eta 5.000 eskumutur banatu dira "Eraso matxistarik gabeko jaiak" goiburuarekin, udalbatza osoaren argazki-berri batekin.

Jakinarazi du irailetik aurrera ahalduntze eskola berriro hasiko dela, eta liburuxka bat

desarrollado y aquellas que están previstas.

A continuación pasa a hacer un resumen:

2.1. Cesión de locales en el centro del voluntariado en Gobelaurre: Informa que el 16 de julio ha firmado el Decreto con la aprobación de la convocatoria para la cesión de los locales del centro de voluntariado en Gobelaurre y que el plazo de solicitudes finaliza el 11 de septiembre. Los locales de disponen de espacios para sedes, actividades temporales y actividades ocasionales, siendo los dos primeros usos adjudicados mediante esta convocatoria.

Varios miembros de la Comisión solicitan los documentos de régimen de utilización y la convocatoria locales. El Secretario se compromete a enviarlos, por email, a la direcciones de los partidos políticos.

2.2 Igualdad:
Informa sobre 4 actividades relacionadas con la campaña de sensibilización para evitar agresiones sexistas en los espacios festivos e inculcar valores sobre todo en la personas jóvenes: Colación de vinilos en distintos puntos del municipio que reflexionan sobre la relación de parejas en igualdad; 2 Tótems itinerantes en las fiestas del municipio con imágenes del programa beldur barik y el logo Planto; publicidad en el metro y autobuses y el reparto de 5.000 pulsera con el lema “eraso matxistarik gabeko jaiak” junto con una foto-noticia con toda la Corporación.

Informa que a partir de septiembre, nuevamente dará inicio la escuela de

argitaratuko dutela haren eduki guztiarekin.

Kontuan hartuta irailean Berdintasun kontseilurako deialdia egin behar dela, titular bat eta bi ordezkari izendatzeko eskatu die alderdi politikoei, kontseilu hori sor dezaten. Aukera Berdintasuneko eragileei helaraztea esan die.

Paula Amievak elkarteen ordezkaritzan edita Kontseiluko funtzionamendu arautegian aldaketarik aurreikusita dagoen galdetu du.

Carmen Díaz andreak erantzun du ez dagoela aldaketarik aurreikusita, baina Kontseiluak 10 urteko jarduera dagoeneko duenez, haren funtzionamendua berrikustea proposa litekeela. Hala ere, Berdintasun Kontseiluan bertan egingo dela beti.

2.3 Lankidetza:
Honako hau jakinarazi du: Platforma erakundearen adei-bisita jaso dute; laguntza izendunak eman zaizkio Prosahara Atfal Elkarteari eta Euskal Fondo-ri; diru-laguntzen deialdia egin da GGKEetarako; European days of local solidarity-ren IV. edizioa antolatu da, eta XXII Getxotik mundura- mundutik Getxora egin da.

2.4 Kulturartekotasuna:
Zurrumurruen aurkako estrategiaren barruan, hauxe jakinarazi du: jai-batzordeekin egindako akordioa, eta jaietan standekin parte hartzea; Itxas Argiarekin egindako akordioa, paelletan sari berezi bat entregatzeko; prestatzeko bi lan-ildoak

empoderamiento y que editará un folleto con todo el contenido de la misma.

Teniendo en cuenta que es necesario convocar el Consejo de Igualdad en el mes de septiembre, pide a los partidos políticos que nombre una persona titular y dos suplentes para la constitución de dicho consejo y que se lo hagan llegar a la Agente de Igualdad de Oportunidades.

Dª. Paula Amieva pregunta si hay cambios previstos en el en la representación de asociaciones y/o en el reglamento de funcionamiento del Consejo.

Dª. Carmen Díaz responde que no hay cambios previstos pero dado que el Consejo lleva 10 años de funcionamiento se podría plantear la revisión del funcionamiento del mismo. Ahora bien, siempre será dentro del mismo Consejo de Igualdad.

2.3 Cooperación:
Informa sobre: la visita de cortesía recibida por la entidad platforma; la concesión ayudas nominativas a la Asociación Prosahara Atfal y Euskal Fondo; la convocatoria de subvenciones para el fortalecimiento de la ONGDs; la IV edición de European days of local solidarity y de la celebración del XXII Getxotik mundura-munditik Getxora.

2.4 Interculturalidad:
Dentro de la estrategia anti rumores informa sobre: el acuerdo con la comisiones de fiestas y la participación en las mismas con stands; el acuerdo con Itxas-argia para la entrega de un premio espacial en paellas; las dos líneas de

(administrazio publikoetarako ikastaroa eta sakontze mintegiak); Madrilen egiten den gazteen biltzarra, non 12 getxoztarrek parte hartuko duten; munduko arrozen programa, eta plataforma Folk jaialdian parte hartzea, munduko terrazak kudeatuz.

trabajo en la formación (curso para administraciones públicas y seminarios de profundización); la cumbre juvenil que se celebra en Madrid donde participaran 12 getxotarras; el programa arroces del mundo y la presencia de la plataforma en el festival Folk con la gestión de las terrazas del mundo.

2.5 Mendekotasunak prebenitzea:
Ikastetxeetan egiten den mendekotasunak prebenitzeko programari buruzko informazioa eman du. 2018-19 ikasturtean 6.000 ikaslek baino gehiago eta 189 pertsonak parte hartu dute familia-eskolan (% 88 emakumeak izan dira).

2.5 Prevención de adicciones:
Informa sobre el programa de prevención adiciones que se lleva a cabo en los centros educativos y donde el curso 2018-19 han participado más de 6.000 alumnos/a y 189 personas en la escuela de familia (88% mujeres).

**3.- GALDERAK ETA ESKARIAK**

**3.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

3.1 Paula Amievak idatzita aurkeztutako galderak irakurri ditu, erregistro-zenbakia: 23.212, ikastetxe batean bullying kasu batengatik geratutako suizidioari buruz.

3.1 Dª. Paula Amieva da lectura a las preguntas presentadas por escrito, nº de registro 23.212, referentes a un caso de suicidio a causa de un caso de bullyng en un centro escolar.

Carmen Díaz andreak jakinarazi du kasu hain traumatiko hauetan, egoerak berak eskatzen dituen beharrei erantzuten zaiela. Alkatetzak familiari eskaintza egiten dio, eta egoera bakoitzaren arabera, erantzun bat edo bestea ematen da. Bullyingaren eta suizidioen prebentzioaren arazoa egoera oso konplexuak dira, eta udalaz gaindi ebatzi behar dira bere ustez. Hori horrela, jakinarazi du "*EAEko ikastetxeetako jarduera gida, eskola jazarpenaren aurrean*" izeneko gida bat dagoela, eta "*Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia*" berriki onartu dutela. Biak EJk bultzatu ditu, eta udalek aktiboki lagundu beharko dute.

Dª. Carmen Díaz informa que en estos casos tan traumáticos se da respuesta ajustada a las necesidades que plantea la propia situación. Desde Alcaldía se hace un ofrecimiento a la familia y en base a cada situación se da un tipo de respuesta u otro. Entiende que la problemática del bulling y la prevención de los suicidios son situaciones muy complejas que deben ser abordadas de instancias superiores a la municipal. En este sentido, informa sobre la existencia de una "*guía de actuación en los centros educativos de la CAPV ante el acoso escolar*" y sobre la recién aprobada *"estrategia de prevención del suicidio en Euskadi*". Ambas impulsadas por el GV, donde los ayuntamientos deberan

colaborar activamente.

3.2 Nerea Guijarrubia andreak idatziz aurkeztutako galderak irakurri ditu, erregistro-zenbakia: 20.682, Zubileta eskolako ortuei buruz, eta Lurralde eta Gizarte Kohesioko Batzordeari zuzendutakoak. Lurralde Batzordean erantzun direnez, erantzun horiek osa ditzakeen gairik dagoen galdetu du.

3.2 Dª. Nerea Guijarrubia da lectura a las preguntas presentadas por escrito, nº de registro 20.682, sobre las huertas de la escuela Zubilleta y dirigidas a la Comisión informativas de Territorio y Cohesión social. Dado a que han sido respondidas en la Comisión de Territorio, pregunta si hay alguna cuestión que pueda completar dichas respuestas.

Carmen Díaz andreak jakinarazi du duela bi urte proiektua hasi zenetik finantzazio desberdina izan duela, eta une honetan Caixak ez duela finantzazioarekin jarraitzen. Bere ustez oso proiektu interesgarria da, eta egoera berria aztertuko dute Getxoko Udalaren diru-laguntza deialdien barruan.

Dª. Carmen Díaz informa que el proyecto desde el inicio, hace dos años, ha contado con una financiación diversa y que en estos momentos la entidad que no continua con la financiación es la Caixa. Entiende que es proyecto muy interesante y que se estudiará la nueva situación dentro del marco de las convocatorias de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo.

3.3 Paula Amieva andreak galdetu du 2019an etxerik gabeko pertsonak zenbatu behar diren.

3.3 Dª. Paula Amieva pregunta si el 2019 toca hacer recuenta de las personas sin hogar.

Carmen Díaz andreak jakinarazi du bi urtez behin zenbatzen dela, eta 2018. urtean egin zutela azken zenbaketa.

Dª. Carmen Díaz informa que el recuento es bianual y que el último se realizó en el año 2018.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez gero, batzordeko lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du gaurko 12:40an. Akta hau egin da emaitzarekin, eta nirekin batera lehendakari andreak sinatu du. Horren guztiaren fede ematen dut idazkaria naizen honek.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 12:40 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, el Secretario suplente, doy fe.

Carmen Díaz Pérez
Gizarte Kohesiorako informazio Batzordearen Lehendakaria
Presidenta de la Comisión informativa de Cohesión Social

Mikel Kerexeta Kortabarria

Gizarte Kohesiorako informazio Batzordearen ordezko idazkaria
Secretario suplente de la Comisión informativa de Cohesión social